

Matematika

Lehen Hezkuntzako 6. maila:

MUNDUKO ILARA

2. ariketa

- Deskargatu dokumentua eta osatu taula 3 herrialde hauen datuekin.

Herrialdea	Postua munduko zerrendan	Giza Garapeneko Indizea	Batez Besteko bizi itxaropena		Batez besteko ikasketa urteak		Pertsonaren batez besteko irabaziak urtean
			Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	
Norvegia	1	0,94	77	83	12	12	36.028
Kongoko Errepublika Demokratikoa	187	0,29	53	57	3	2	212
Espainia	23	0,88	78	84	10	10	20.089

- Orain, hiru herrialde horien batez bestekoa kalkulatu dugu. Gogoratu batuketak eta zatiketak egin beharko dituzula.

	GGI	Bizi itxaropena		Ikasketa urteak		Pertsonaren irabaziak urtean
		G	E	G	E	
MUNDUA	0,70	69	73	8.3	8	18.776

3. ariketa

- 9 herrialdeen taula aurrean dugula, gogoeta egingo dugun denon artean galdera hauetatik abiatuta:

- Zein herrialde da pobreena emakumeen bizi itxaropenari dagokionez? Eta aberatsena?

Emakumeen kasuan, Afganistan da herrialde pobreena, haien bizi itxaropena 50 urtekoa delako.

Aldiz, Espainia eta Australia dira herrialde aberatsenak, emakumeen bizi itxaropena 84 urtekoa delako.

Afganistanen eta herrialde aberatsen (Espainia eta Australia) artean, 27 urteko aldea dago.

- Gizonen kasuan, zein herrialde da pobreena bizi itxaropenari dagokionez? Eta aberatsena?

Gizonen kasuan, Afganistan da ere herrialde pobreena, haien bizi itxaropena 44 urtekoa delako.

Aldiz, Australia da herrialde aberatsena, 79 urteko bizi itxaropenarekin.

Australiaren (herrialde aberatsena) eta Afganistanen (herrialde pobreena) artean, 35 urteko aldea dago.

- Badago alderik bizi itxaropenean gizonen eta emakumeen artean?

Bai. Oro har, emakumeen bizi itxaropena gizonena baino handiagoa da: 6 urteko aldea, batez beste. Alde hori herrialde guztietan antzematen da, pobre nahiz aberats.

- Erreparatu ikasketa urteen zutabeari. Zein da herrialde aberatsena? Eta pobreena?

AEB da herrialde aberatsena: bai emakumeek bai gizonak 13 urte batez beste pasatzen dituzte ikasten.

Kongoko Errepublika Demokratikoa eta Afganistan pobreenak dira, gizonak bakarrik ikasten dituzte 3 urte batez beste eta emakumeek bakarrik bi eta bat urte hurrenez hurren.

- Badago alderik ikasketa urteetan gizonen eta emakumeen artean?

Taulako herrialde aberatsetan (Norvegia, Australia, AEB, eta Espainia), emakumeak eta gizonak ez dago beren artean desberdintasunik.

Aldiz, herrialde pobreetan, gizonak emakumeek baino aukera handiagoa dute ikasi eta prestakuntza jasotzeko.

- Kontuan izanik diru irabaziak, zein da herrialde aberatsena? Eta pobreena?

Norvegia eta AEB dira diru irabazietan aberatsenak; herrialde horietan lan egiten dutenek 32 mila €-ko irabaziak dituzte urtean batez beste.

Kongoko Errepublika Demokratikoa da herrialde pobreena, 212 €-ko irabaziekin pertsonako eta urteko. Haiti eta Afganistan dira hurrengoak zerrenda horretan, mila euro ingururekin pertsonako eta urteko.

5. ariketa: Pobrezia EAEn

- Ondoko grafikoa Euskal Autonomia Erkidegoko pobreziari buruzkoa da.

Aztertu arretaz eta erantzun galderei.

Egin klik fitxategian dokumentua deskargatzeko.

Sektore berdeak adierazten duen ehunekoa pobrezian eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan dagoen EAEko biztanleriari dagokio: % 16.

- Euskal Autonomia Erkidegoak **2.169.038** biztanle baditu, zenbat pertsona daude pobrezia egoeran eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan?

347.046 pertsona daude pobrezian eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan. Ia-ia Bilboko biztanleak bezainbeste (352 mila biztanle).

- Zeintzuk dira EAEko pobreziaren arrazoi nagusiak?

Langabezia edo lan prekarietatea, gehiegizko zorpetzea etxebizitza erosteagatik, gizarte laguntzarako sareen falta.

- Pobrezia eta bazterketa zantzurik antzematen duzu EAEn? Zein dira zantzu horiek?

Laguntza eskaerak ugaritzea; pertsona kopuru gero eta handiagoa gizarte jangeletan; etxebizitza ordaindu ezin dezaketen pertsonak...

- Badago laguntzarik pertsona eta familia horientzat? Zer motatako laguntzak dira?

Gutxieneko errenta, gizarte jangelak, alokairurako laguntzak...